

Segutarsuna duintasuna ere BAI



Covid-19 ak eragindako konfinamendu ondorengo lehen ikasturtea hasi dugu azken egunotan eta zalantzak, beldurrak, segurtasun neurriak eta protestak tarteko, berriz jarri dugu fokoa haur eta nerabeengan.

Badira bost hilabete Oinherriko "Gora Haurtzaroa" egitasmoa sortu eta sustatu genuela. Haur eta nerabeen eskubide urraketa nabarmenaren aurrean eskubide horien defentsa aldarrikatu genuen. Haien artean haur eta nerabeei hitza eman eta entzunak izateko eskubidea.

Haur eta nerabeen harremanak bermatzea beharrezkoa dela azpimarratu izan dugu beti, "lagun goseari" erantzun eta gizakiok dugun sozializazio premia horri erantzuteko. Izan da denbora ikasturte hasiera adostu, seguru eta duin bat prestatzeko baina hainbat administrazioen axolagabekeriak, berriz eraman ditu haur eta nerabeak helduon burugabekeriak pairatzera.

Agintari batzuen axolagabekeriak aritu gara, ikastetxeen beharrak aztertu ditugu, irakasleen eta hezkuntzan lanean ari diren profesionalen eskubideak bermatu daitezkeen aldarrikatu dugu, gurasoen kezka aditu ditugu, baina pasa den ikasturtean, ezer ikasi ez bagenu bezala, haurrak ahaztu ditugu berriz ere.

Musukoak jantzita eta guztiz ulertzen ez dituzten neurri eta arau berriz inguratuta itzuli dira ikastetxeetara Euskal Herriko haurrak, beren lagunak besarkatzeko baimenik gabe. Sistema okerra zela bagenekien lehen ere. Aldatu beharrazegoela aspaldi esan genuen. Konfinamenduan gogoeta ere egin genuen bestelako hezkuntza ereduari buruz, zaintzan eta elkarren heziketan oinarritutako komunitateak sendotzeari buruz, haurrak eta zaugarrienak diren jendarteko subjektuak erdigunean jartzeari buruz, ingurune natural eta kulturala ikas eremuan txertatzearen garrantziari buruz, eta ikasturte berria hastearekin batera, Klik! Dena ahaztuta! Lehen okerra zen sistema hartara nola egokitu gaitezkeen hasi gara pentsatzen. Lehen baino egoera okerragoan, lehen baino baldintza kaxkarragoan... Ez al dugu deus ikasi!?

Beldurra nagusitu den garaiotan, ikaragarriko ahalegina egiten dabiltzan hezitzaile taldea dago, maitasunetik, zaintzatik. Baina baliabideak falta zaizkigu, nola bermatuko dugu zaintza hau goitik datozen baldintzak oztopo badira?

Zein tarte emango diegu ikasleen emozioei? Etxetik atera gabe hilabeteak pasa ondoren, zenbat denbora eskaini diogu ikasleen arteko harremanak berrartzeari? Dituzten zalantzak argitzeari? Dituzten beharrak asetzeari?

“Sei urteko haurrek zortzi orduz musukoa eramatea ez da errealista”.- Dio 12 urteko Leok - **“Eta ia denbora guztian kalean egon beharko genuke: klaseetarako, jolasteko... Eta egunetako atsedenaldiak txandaka egitea edo haiek kentzea aztertzen ari dira. Egunak patiora atera gabe! Zer pentsatzen ari dira? Jokatzen uzten ez badigute, erotu egingo gara!”**

“Ama, zin egiten dizut ez dudala berriz ez tulik eginen” – Esan dio negarrez hiru urteko Hodei haurrak bere amari PCRa egitetik ateratzerakoan.

“Beno, kosta egiten zait musukoarekin arnasa hartzea, baina hiltzea baino hobea da!”
– dio sareetan zabaldu den bideoko neskatilak ere –

Hezkuntza ez formalean zein aisialdian zertan gelditzen den ere behatu beharrekoa da. Hezkuntzaz ari garenean, ikastetxez soilik gogoratzen garelako beste behin ere. Eskolaz kanpoko kirol jarduerak, kultur ekintzak, ikastaroak, ludotekak, gaztelekuak, e.a. haur eta nerabeen heziketaran parte garrantzitsua dira.

Herri eta komunitate bezala erantzun beharko genieke hezkuntza premia guztiei, bai ikastetxeetan ematen denari baina baita eskolaz kanpoko hezkuntzari ere, erdigunean haur eta nerabeen beharrak osotasunean jarritz.

Idea horri, azken hilabete luzeetan euskarak pairatu duen atzeraldia gehitu geniezaioke, haur eta nerabe askoren euskarazko arnas gune bakar diren ikastetxeen eta euskara erdigunean jartzen duten aisialdi egitasmoen itxierarekin. Euskal herritarron arteko hizkuntza arrakala areagotu aurretik, horri erantzuteko neurriak hartzea ere behar-beharrezkoa izango da.

Alabaina, ikasturte hasiera narras honetan badira argi izpiak ere: ikasgelak inguru naturalera irekitzeko lanean ari direnak, eskolak herrira irekita herriko jolasgune eta parkeak hezigunearen parte bihurtzen ari direnak, haur eta nerabeen beharretan ardaztutako aisialdi hezitzailea garatzen ari direnak, krisi guzti honen aurrean bestelako hezkuntza eta herri eredu baterako aukerak ikusten dituzten langile, familia eta herritarrak. Eskerrik asko zuei!

Eredugarriak izan daitezkeen jarrera horiek hauspotuta, elkarri lagunduta, ahalegindu gaitezen osasuna eta duintasuna lehian ez jartzen. Haurrak eta nerabeak behingoz komunitateetako kide bezala aitortu behar ditugu, erabakiguneetan sartu eta ikasturte berri honetan, haurren eta nerabeen kultura, partehartzea, euskara, aniztasuna eta gure ingurune natural eta kulturala aintzat hartuta, eskola herritar eta herri hezitzaileen bidean urrats berriak ematen.

